

1.2.1 GAIAREN AURKEZPENA

> Iratiren eta Beñaten familia (bideoa)



Helburuak

- Umeek Iratiren eta Beñaten familia ezagutzea.
- Umeek familia-harremanak izendatzen ikastea.
- Familiaren aurkezpena nola egiten den ikustea.
- Joxerekin harremanetan egotea.

Prozedura

- Lehenik eta behin, Joxek zerbait bidali diela esan.
- Gai berri bat dela azaldu.
- Joxek bidalitako bideoa ikusi.
- Bideoan ikusitakoa umeekin komentatu.
- Ulertu duten ikusteko galderak egin.
- Iratik egindakoa egiten ikasiko dutela esan.

Oharrak

- Nahikoa da bideoa behin ikustea.
- Umeei argi esan zein izango den hurrengo lana: euren familia aurkeztea.
- Gaiaren lanketa bukatzean, berriz ikus daiteke bideoa, umeei zenbat ikasi duten ikusi eta euren burua baloratzeko.